

# Ze barri?

1998  
AZAROA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

25 zkia.

*Urlatik Landetara*

Prestazio Soziala  
Eskoriatzan

Unai lihurategi  
Munduko txapelduna  
Mexikon

San Milixanak  
Gatzagan



**Eskoriatzarra  
txakur leratan  
garaile**

Hemendik aurrera koloretako publizitatea  
sartzeko aukera izango duzu **Ze barri?**  
Eskoriatzako herri aldizkarian.

Anima zaitetz!

Telf. 943 714077

**Cuenta Joven  
de Caja Laboral**  
El servicio  
más completo.

**Euskadiko Kutxaren  
Kontu Gaztea.**  
Zerbitzuetan  
osatuena.

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

**G  
A  
M  
M  
A**

**BETIRAKO DEPILAZIO ELEKTRIKOA**  
EEBB ko sendagile elkarteak onartutako  
metodo bakarra  
**KONTSULTA DOHAIN**

Maalako Errebala 17 1º A ARRASATE  
Tfnoa 943 795125

**VILLAR**  
*ileapaindegia*

Tel. 71 50 42



**Decor**

**Industrias Olabarri, S.A.**

Arana, 20 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)  
Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxe: 34-43 - 714061

**LENIZ**  
**AUTO ESKOLA**

tel. 943 71 41 86

*Gida baimen guztiak!*

**AZKOAGA**  
ESTANKOA

Zure zerbitzura

**ALDATZ Taberna**

Tfnoa.: 943 714171

*Musika ona entzun dezazun*

**EIZMENDI**  
okindegia eta gozotegia

Eduardo Gorosari plaza  
Tfnoa. 943 715417

**A&B**  
*aholkulariak*

**LAGUN-ARO ASEGUURUAK**

**LEGEZKOA  
FISKALA  
KONTULARIA  
LABORALA**  
**LAGUN-ARO ASEGUURUAK**

**ALDETEC**



-----**TASAZIOAK**  
-----**PERITAZIOAK**  
-----**PROIEKTU ING.**  
-----**OBRA ZUZENDARITZAK**  
-----**ERREFORMAK**

Gastañadui, 7  
Tel.-Fax. 943 71 54 36

20540 ESKORIATZA  
(Gipuzkoa)

Tel.:908-774133 Tel.-Fax 715436 **20540 ESKORIATZA**  
Gastañadui, 7 - bajo

## ITOITZ ARMENDARIZ

Musher txakurren lasterketan aritzen da. Diman, 1998ko azaroaren 15ean ospatu zen musher txapelketan parte hartu zuen. Txapelketa hau Neguko Kirolen Euskal Federazioak antolatuta zuen eta bertan 200 txakur eta 30 partehartzaile egon ziren. Itoitzek oso postu onean bukatu zuen lasterketa, bere kategorian lehena izan baitzen. Kategoria pulka deitzen zaio eta txakur batekin edo birekin parte hartzen da.

Orain arte iparreko txakurrekin har zitekeen parte, baina aurten hasita, edozein arrazatako txakurrek izango dute leratik tira egiteko aukera.

Hemen inguruan, Bergaran bakarrik egiten da urtean lasterketa bat, apirilean.



### 1-Noiztik hartzen duzu parte honelako lasterketetan eta zergatik hasi zinen?

Orain dela 3 urte hasi nintzen, txakurra erosi nuenean saltzaileak esan zidan lasterketara joateko, joan nintzen, gustatu zitzaidan eta hor nago.

### 2-Non lortu duzu posturik onena?

Diman, 1998ko azaroaren 15ean

### 3-Euskal Herrian trineo txakurren lasterketa hauek parte hartzeko zaletasun handia al dago?

Nafarroan bai, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban ere bai, baina gutxiago. Asko asko Kataluñan

### 4-Zein modalitatetan parte hartzen

duzu?

Pulka kategorian, txakur bat edo birekin.

### 5-Nola prestatu dituzu zure txakurrak?

Astearte eta azteazkenetan Urkulun entrenatzen dut eta gero lasterketan ere bai.

### 6-Inoiz elurretan ibili al zara txakurrekin?

Ez.

### 7-Hurrengo lasterketa non eta noiz izango da?

Azaroaren 28 eta 29an Azagran (Kalahorra ondoan) eta abenduaren 12 eta 13an Nazar herrian (Maeztu bailaran).

### 8-Txakur obedienteak al dituzu? Zer egiten diezu kasurik egiten ez

dizutenean?

Lasterketan oso obedientiak dira, baina gero libre daudenean ez dute kasu handirik egiten, txakur hauek horrelakoxeak dira.

### 9-Horrelako txakurrekin, Artzai ona izango zinateke?

Ez, otso sena daukate eta ardiei eraso egiten diete.

### 10-Zer aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?

Dimititu, errepidea konpondu ondoren.

### 11-Zer nabaritzen duzu faltan ZE BARRI aldizkarian?

Ezer ere ez, niretzat ondo dago, herri txiki honetarako nahikoa da.

## KALEKO IRITZIAK

Ba al dakizu euro bat zenbat peseta diren?

Euroarekin nola moldatuko zarela uste duzu?

**Mari Tere Lazkano**



- 116 edo 163 bietako bat.  
- Gaizki, hasieran behintzat, guretzat gainera barrixen barri hastie gogorra izengo da.

**Asun Martinez Altuna.**



- Idearik ere ez, 169 bat ez da euroa?  
- Hasieran zaila izango da baina gero ondo.

**Eli Gutierrez.**



- Ai ene, idearik ere ez.  
- Konplikatua izango da hori, gazteok esplikatu beharko diguzue, guk buruan hartzeko.

**Jose Antonio Ponferrada.**



- Bai, 164 inguru.  
- Ondo espero dut.

**Ana Gomez.**



- Ez, idearik ere ez.  
- Ez dakit baina nola edo hala moldatu beharko dugu.

**Emili Garcia.**



- 167 ta piku.  
- Zaila izango da baina ziur ikasiko dugula, beharko ikasi!.



### ZE BARRI?

Argitaratzailea: AXTROKI KULTUR ELKARTEA  
Erredakzio kontseilua: Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano eta Lourdes Martinez.  
Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano, Aitor Urrutia, Asier Errasti.  
Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.  
Tirada: 2.000 ale  
"ZE BARRI?" aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"



Eskoriatzako Udalak diruz lagundutako aldizkaria  
Euskara Batzordea




## Artisan Azoka Leintz Gatzagan.



Azoka aurten bi zonatan zegoen banatuta. Bata frontoian, non, egurrezko tresnak, otzarak, serigrafia (kristalezko artisau lanak) ... zeuden ikusgai. Bestea berriz, goiko aparkalekuan (Zuhaitz tabernaren ondoan), bertan, artilezko galtzerdien, landutako harrien, argizarizko kandelen eta beste hainbat artisau lanen postuak zeuden ikusgai.

Egunsenti euritsua izan arren, kanpotar ugari hurbildu zen Leintz Gatzagara urtero egiten den artisau feria ikusteko. Antolakuntzak, etorriko ziren bisitari kopuruaz ohartuta, autoak aparkatzeko lekuak oso ondo antolatu zituen.



Antolatzaileen esanetan, jende kopuru polita hurbildu zen nahiz eta eguraldi kaxkarrak ez zuen gehiegi lagundu eta jende kopuru hau ez zen ia bestekoa izan. Gatzagako emakumeek nahi adina talo prestatu zituzten eta bisitariak gustora probatu zituzten bai talo bero-beroak. Giroa animatzen bizkaiko dantza talde bat ere egon zen.




Bukatzeko esan, aurtengo artisauen azoka hau arrakastatsua izan zela eta ea hurrengo urtean ere errepikatzen den.



# Unai Inurrategi.

## Munduko Pilota Txapelketan urrezko domina.

25 urte dituen Eskoriatzar honek makina bat urte badaramaittu pelota munduen. Sei urtekin ekintzen pelotan jokatziei eta hemezazpi urtekin afizionauetara pasau zan. Afizionauetan hamaika txapelketatan parte hartu ondoren, aurtan lortuitsu garaipen inportantienak: Deba arroko txapelaldun, Gipuzkoako txapelaldun, Espainiako txapelketan azpitxapelaldun. Uztailean errege kopa irabazi euen Akoruñan eta orain Mexikotik bueltau barri jaku, han ospatu zan mundialien urrezko medaille lortuz hemengo pelotarixen parekoik potzuen bestaldien be topetaik gatxa dala majo demostraute. Eta hau danau lortute, pausurik zailena emutie geldiketan jako, profesionaletan debutatzie. Berak esan dozkunez momentuz hori ametsa baino ez da.



**Zer moduz munduko txapelaldun ein zinenetik, morala goixan eukikozu?. Orain partiduak samurrau irabazten al die?.**

Morala goixen bai, baina guretako munduko txapelketie nahiko errexa izen da, eta ez da arrokeixetan ibiltxiarren. Hemen moduen pelotan inun ez da itten. Guk astero jokaketaitsugu partiduek, beste lekuetan barrez ez. Horregatik mundiala irabazi arren hemen partiduek lehengo antzera jokaketantsugu.

**2. Nolako maila topau dozue mundialien?. Ze haserie behintzet mundiala emuntzazuen kanpeonatuai; Yanizek eta zuk, kubatarren kontra 22-1 irabazi zeuien, zer pasau zan?.**

Normalien, hemendik faten dienak kontrarixoik gogorrenak izeten die, eta eurek barrez ez euien ekipoko onenak atara, eta gainera gogo gutxi ipini euien. Eta gero hori pasau zan, 22-1. Nik uste dot diferentzia hori larreikue dala, normalien partidu baten failo geixau itteitsez, baina eskerrak eurak gogo gutxikin etorri zien.

**Zueik urrien bila fan zinein, eta lortu be lortu zeuien, baina ez ote zan poza haundixae izengo pelotan geixau einda irabazi bazeuien?.**

Bai, guretako oso triste da haraino fan eta halako egurrek emun ostien ixen pelotan ein barik etxera bueltetie. Nik preguntau duztien danai esantziet, han gogorrena gure artien entrenetie izen dala, hor ikusi dalako benetan ze maila daukoun.

**Zergatik joaten die munduko txapelketetara afizionatuak?.**

Lenau deporte danetan pasetan zan hori, orain futbolean edo balonzestuen profesionalak

be faten die. Pelotan momentuz afizonauek faten die bakarrik, eta beste lekuekin konparaute hemen dauen mailie ikusitxe, ez dau merezi mundialetara be profesionalak biaketaik. Gero baita kontutan euki biher da pelotan enpresa pribauk dazela sartute, eta honeik be zer esana badaukie.

<< Profesionaletara iristia da pelotan hasten dan edonorren ametsa, nahiko zaila dauen arren, saiatu ein behar da >>.

**Dana dala, zure merituak eingo zitsuen txapelketa horretan parte hartzeko, nola aukeratu zintsuzten?.**

Nik uste dot aurtan izan dittudan garaipenak zabaldu duztie geixenbat kanpeonatorako bidie. Akoruñan errege kopa irabaztie erabakigarrixen izen zan Muru eta

bixontzat, han nahiko maila ona erakutsi geuen eta gero bixok egon gare mundialien.

**Zer moduzko organizazioa topau dozue mundialien?.**

Eskaxa, ez daue merezi barrero mundialik organizetan isteik be. Danetik euki dou; Frontoiek hasi baino bi egun lenau bukatu euien pintxetan, eta numeroik be ez eukien, markadoreik bez ... Kantxako orduik

be ez zuzkuen emun eta ez gauen jakitsen noiz entrenau geikien. Gauzak ahal geuen moduen konsegriruten ibili gare, baina bueno, txarto ez dou pasau. Gure artien oso giro ona egon da eta gu ondo moldau ezkerro, horreik problemok txikinek geraketan die.

**Partidu ostien dutxau barik bueltaitzen omen zinein hotelera, ez al zeuien izerdirik botatzen hala!.**

Bai, izerdixe bota bai, baina frontoietan ez euen aldagelaik. Hori be organizazinuen failo bat. Askotan gainera, partidu ostietan 20 minutu eitengitsuen autobusez. Gero inork ez euen gurezetan gure autobusien sartzeik, normala!.

**Mundiala izen al da pelotari moduen jokatu dozun txapelketa garrantzitsuena?.**

Txapelketa moduen bai, baina nibel aldetik ez.

**Eta orain, mundiala eta gero zer, guzti honek profesionaletara igotzeko atear irekiko al dizkizu?.**

Bueno, nirekin egon dien batzui zabaldu dotzie atiek, Patxi Ruizi esaterako. Muruamendiaraz eta Berraondok be aukerak badaukie. Nik neuk momentuz ofertarik ez dot jaso, gustauko jaten ze hori pelotari danok gure geuke, baina, ez duzta geixei ardura. Salto haundixe dau afizonauek profesionalak; igotzeko afizonauek oso ona izan behar dozu eta hala ta be, profesionaletan ez zara hain ona.

Asegarce eta Aspe, bi enpresak egotiek asko lagundu dau afizonauek igoteko, baina oso zaila da salto hori emun eta ondo ibiltzie. Lehenengo pelotan ondo ikesi biher da, eta guri urte batzuk geraketan jaku ondion ikesteko...



Hegoaldeko eta iparraldeko pilotariak elkarrekin. Zutik: Bi iparraldeko, Patxi Ruiz, Berra, Iker Muruamendiaraz, Jorge Yaniz, Iriart eta Unai Inurrategi.

## Eskoriatzan 'soldaduzka' egiten?

Jakin dugunez ihaztik hasita, badago Eskoriatzan ere soldaduzkaren ordeko prestakuntza egiteko aukera. Eskoriatzako elkarte batzuen eskeintza dela eta, gaur egun 7-8 bat lagun ari da Eskoriatzan soldaduzkaren ordekoa betetzen Musika Bandan eta Kirol Elkartean banaturik. Aukera honi buruzko informazioa jasoteko hauetariko batzuk elkarrizketatu ditugu.


- 1.- Noiztik zara objetore?
- 2.- Zergatik egin zinen objetore?
- 3.- Nola egokitu zaizu aukera hau?
- 4.- Non ari zara prestakuntza betetzen?
- 5.- Zenbat denbora da guztira?
- 6.- Noiz hasi zinen?
- 7.- Zer lan mota egiten duzu?
- 8.- Nola baloratzen duzu aukera hau?

## OBJEZIOA -INTSUMISIOA

\* Soldadutzara joateko azaroko zozketan sartu bazaituzte eta zer egin ez baldin badakizu, etor zaitez Arrasateko Gazte Bulegora eta bertan azalduko dizugu beste zein irtenbide daukagun.

## ANDER ZABALA

- 1.- 1996ko martxotik
- 2.- Soldaduzkara ez joategatik.
- 3.- Madrilatik bidalitako eskutitzean aukera 2 hartzeko eskatzen dute. Aukeratutakoren batean elkarren adostasuna lortuz gero, bertara joango zarela ziurtatzén dizute. Bestela, aukera bietakoren batera, lekuri balego eta bestela etxetik gertuen dagoen batera.
- 4.- Eskoriatzako Musika Bandan.
- 5.- 9 hilabete, soldaduzka bezela.
- 6.- Urriaren 22an.
- 7.- Fotokopiak, artxiboa prestatu, administrazio lana... eta kontzertuak daudenean pretaketa lanetan lagundu.
- 8.- Soldaduzkatik libratzeko era on bat eta etxe ondoan egiteak asko errezen ditu gauzak.



## ALBERTO SALGADO

- 1.- 1996ko urriatik.
- 2.- Soldaduzkatik libratzeagatik.
- 3.- Iaz beste batek egin zuen Kirol Elkartean eta hori jakinda lehendakariarekin hitzartu genuen aukera. Beste batzuri hitzartu barik tokatu ei zaie bertara. Aurten oraingoz 4 ari gara kirol elkartean.
4. Kirol Elkartean.
- 5.- 1998ko urriaren 5ean ofizialki baina berez denboraldi hasieran hasi ginen.
- 6.- 9 hilabete, oporretako hilabete bat barne.
- 7.- Fitxak eraman, kirol materiala prestatu eta kirolariei eraman, seguru arazoez arduratu etab. Hitz bitan esateko ekipoa zaindu eta elkarteari lagundu.
- 8.- Oso ondo, lanik galtzen ez dudalako. Loteria izan da niretzako. Nire ustez horrelako postu gehiago atera beharko lirateke, ahal den neurrian.



Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa

fundazioa  
fundaciónDORLETA  
Aranburuzabala, 22 -bajo  
Tfnoa.: 943 71 51 20ALDI  
JANARI DENDAHidalga, 8  
Tfnoa: 943 71 45 42

## MIGEL ROYO

- 1.-Orain dela 3 hilabete.
- 2.- Lanean jarraitzeko asmoa nuen eta Canariasera tokatu zitzaidalako objetore egin nintzen.
- 3.-Eskariak bete nituen eta lehen kirolaria izan nintzelako hartu naute.
- 4.-Eskoriatza kirol elkartean.
- 5.-9 hilabete
- 6.-Hilabete honetan
- 7.-Kirol elkarteko zuzendaritzaz arduratzen naiz.
- 8.-Oso ondo, ezin hobea.

## Intsumiso taldea

Txarto iruditzen zaigu.  
Lan postuak kentzen badituzte txarrago.  
Militarrek profesinal egindakoa, ez dira objetoreak egongo eta postu hauek hutsik geratuko dira objetorerik ez dagoenean, administrazioa zer egingo du?:

- 1-Lanpostuak ipini objetore ordezt?
- 2-Lan horiek boluntarioekin bete?
- 3-Ez da beharrik izango?.

Gure ustez objetoreek intsumiso izateko beldurra dute.



## MIKEL DIAZ DE GEREÑU

## 1.- Noiztik zara objetore?

1996. urte hasieratik

## 2.- Zergaitik egin zinen objetore?

Egoera luzatu eta intsumiso zuzenean ez egitearren.

## 3.- Beraz orain intsumisioa zara. Nolatan?

Aurten Eskoriatzako bandan ordeztoko prestakuntza egitemo aukera eskeini zidaten, Madrildik bidalitako eskutitzean. Ez zitzaidan aukera ona iruditu. Alde batetik injustua iruditzen zait nire aldetik, nire pentsakerarekin ez datorrelako bat, eta beste alde batetik lotsagarria iruditu zait soldaduzkaren joku hori jarraitzea, nahiz eta herri mailan izan, gaur egun insumisioak daukan indar eta onezpenarekin azken batean ejerzitoarekin kolaboratzea.

## 4.- Dena dela jende askok hartzen du aukera hau.

Desinformazioa dago hori egiten dutenen artean. Ondo ikusten dut herriko elkarteei laguntzea soldaduzka tartean egon barik, baina bestela hori libratzeagatik egitea informazio falta dela uste dut. Insumisioaren kontrako zigorrak ez dira uste direnak beste gaur egun. Beste alde batetik komoditatea ere badago noski.

## Kontzientzi eragozleak bandan

Angel Bañares, Musika Eskolako Bandako zuzendariak esan digunez, Eskoriatzako Bandan ordeztoko zerbitzu soziala egiten ari diren kontzientzi eragozleak egotea, Gipuzkoako Banden Biltzarrak Espainiko Barne Ministeritzari egindako eskaera baten ondorio da:

"GIBANTZAREN asmoz, Gipuzkoako Bandetan aritzen diren gazteak, soldadutzara joan beharrean, Bandatan praktikaldiak eginez bertan gelditzeko aukera eskeintzea zen, baina gauzak ez ziren nahi bezala irten, aukera hori bandatan aritzen diren gazteek aparte, ordeztoko zerbitzua egitea nahi duen edozeinen esku jarri bait da aukera hori, eta etortzen zaizkigun zaletasunik, ez hortan hasteko gogorik ere."

Hala ere, eragozleek bolondrea gisan Bandatan aritzeko aukerari esker, bat baino gehiago izan dira ordeztoko zerbitzua gure herrikoan egin duten musikari eskoriatzarrak.



## BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea  
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.



**Esko Sport**

Kirola eta sport moda  
Leintz bailaran.

Tel. 943 715296

## TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN  
ESPEZIALIZATUA**

## EROSLE

HARATEGIA,  
FRUTATEGIA eta  
BESTELAKOAK

Aranburuzabala, 3  
Tfnoa: 943 714546

**IX. MENDI BIZIKLETA IBILALDIA**

1998ko azaroaren 15ean IX. Mendi bizikleta ibilaldia ospatu zen Eskoriatzan. Aurtengoan 78 pertsonak hartu dute parte 36 km ibilaldi honetan. Bitxikeri moduan esan behar da emakume bakarrak hartu zuela parte.

Mendi bizikleta ospatzen hasi zenetik, lehenengo urtea da euria izan dutela partehartzaileek hasieratik bukarera, nahiz eta ibilaldi hau beti udazkenean ospatu.

Aurreko urtean askoz partaid gehiago (bikoitza) egon zen, baina jende gutxitze honen arrazoi inportanteena eguraldia izan zen. Partehartzaile askok bide erdian buelta eman behar izan zuten ibilaldiaren gogortasuna dela eta.

Lasterketa bat ez dela esan behar dugu, baina lehenengo hirurak hauek izan ziren:

- 1-Josebi Elizburu (Aretxabaleta)
- 2-Alfredo Meabe (Aretxabaleta)
- 3-Aitor Larrea (Antzuola)



**Josebi Elizburu**

Ibilaldia amaitu ondoren (2 ordu eta 45 minutu lehenak), partehartzaileak plazan bildu eta ondo merezitako hammarretakoa jan zuten (salda, txorizoa, edariak...).IX. edizio hau amaitzeko partehartzaile bakoitzari kamiseta bat oparitu zitzaion.

Kanpoko jende askok parte hartzen duenez, ibilaldi hau nahiko ezaguna da inguruko herrietan.

Rekorridua hau izan zen:



**Irteera**

Eskoriatza-Urkulu-Mendiola-Bolibar-Aitzorroztz-Makatz-Bolibar-Aitzorroztz-Makatz-Dominaga-Uxar-Bolibar-Eskoriatza.

Antolatzaileen partetik mila esker denoi eta datorren urtera harte.

**IRITZIA**

**Eibar-Gazteiz autopista, zertarako?**

Asteartean Eibar-Gazteiz autopistari buruzko hitzaldi batera joan nintzen. Hitzaldia arratsaldeko 7:30etan zen eta bost bat minutu berandu iritsi nintzenez, esertzeko tokirik ez nuela izango pentsatu nuen, baina benetan harrিতuta geratu nintzen gelan hizlaria eta antolatzaileaz gain beste bost pertsona bakarrik zeudela ikustean.

Nire ustez, autopistaren arazo hau Eskoriatzan azken urteetan izan dugun arazorik larriena da eta gehiegi exageratu gabe herriaren historian zehar izan dugun arazorik larriena. Autopista udalerrriaren erditik pasatuta, herria puskatu nahi digute. Gai honi buruzko kontzientzia indartzeko garaia iritsi da.

Autopista egin nahi badute egin, egingo dutela esaten du jendeak, eta hau aitzakitatzat dagoenetan.

Hitzaldi honetara joan zen jendeak, badaki azken hitza esateko dagoela eta gehiengoaren ustearen kontra, zerbait egiterik badago oraindik, zeren eta autopista egiteko dirurik ez dute eta egindakoan ez zaio errentabilitaterik aterako. Arazo hauek konpontzeko irtenbidea Bilbao-Behobia ,A8, autopistaren kontsezioa luzatzea da, beraz ez dago dena galduta eta autopista hau atzera botatzeko aukeraren bat gelditzen da.

**Kontzientziatu**

Josu Azkarate Kañamake





## Gure berbetan

### SOLIDARIDADIA ETA ANTZERAKO KONTUAK

Igoal pentsaukozue, gaur, Mich Hurakanak Ameriketara eragindakuen katastrofien gainien berba ein biheutsuetela, baina ez, temia oso ezauna da, ta aila kuida bakotxa bere kontzientzaz eta lagunketako asmoa eta moduz. Hurrarako solidaridadiaz ein biheutsuet gaur berba. Nire solidaridadia gaur "Arrasate Press"eko lagunendako doa. Toleranten batzuk einddauien azkenengua, astekarixa izteko amenazia eta kolaboradoreen batzuen deaspresziua dalako, eta fisikua ezpada be, erderaz izengo litzakezen moruen gurata iphinita, agresinotzat hartu geikien euren izen eta apeliduen deskonsiderazinua gauzatu daue, Joxe Aranzabal, Iker Barandiaran eta Karmele Perezekin konkretuen.

Bere burua PDP, (Partido de la Derecha popular)kotzat hartzen dauen artistionek betiko gauzak botaten eiut-sen arpegirs "Arrasate Press":i: euskera hutsien izetia, Mondraueko herritar guztiak euskaldunak eztenien etab. Honeindako esan bihedana da, borondate eta fede onez, holako astakeri, ero "ZE BARRI?" moruko "hilebetekari" xakeitten, geure denpora apur bapaino emuten eztaunok, bi errezoikatik eittendoula: lelhen-gokua, erderaz bizituko posibilitadiaz dauen letxe, euzkeraz bizituko posibilitadiaz eukittia be guroulako. Eta hau konsegiru guran, presnan etab.etan zenbaterainoko eskasia dauen ikusitta, eittia gure dan dana errebista bat ataritia da, gutxienez, jentia, euren herriko

gauzen barri euskeraz euki daixen. Eta hau eztoia ez Konstituzinuen kontra eta ez inguruko inungo legen kontra. Bigarrena, bertan aittaketan dan Konstituzinuak eztau esaten, anoni-muorrek esaten dauena. Eztaukou erabilteko betebiherra, ezauketako betebiherra eta erabilteko deretxua baino, eta horrek esatia gure dauena da ez erabilteko deretxua be badaukoula. Estauen ofizialak dien besten batzuk erabilteittugulako. Fan daila horreatik, gure solidaridade haundixena "Arrasate Press" eta bertako Joxe, Iker, eta Karmelekin. Eta Eskoitzia eta Gatzan holako anonimuak bialketako tentazinuak euki leikiyai E-Maileko direzinua emun baino ez: KK.JAN @.COM.

D.M.III.na.

### EUSKAL LITERATURA ETA MUSIKA DURANGON BILDUTA

Heldu da Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren ordua. Horrela, abenduaren 3tik 8ra bitarte, lehen eguna profesionalentzat bakarrik izango da, liburu, disko, multimedia eta informatika produktu ugari Durangoko Landako soroan kokatuta egon den karpa erraldoian izango dira. Bertan, aurtan euskeraz argitaratu diren 1.560 liburu eta 100 diskoak eta lehenagotik kaleratutakoak ere izango dira. Guztien berri ematea gehiegi den arren, Durangon izango diren berrikuntzetako batzuk azalduko dizkizuegu.

Errepasoa etxeko txikienentzat zuzendutako lanetatik abiaraziko dugu. Horrela, Bernardo Atxagaren bi liburu berri, *Bambulo*. *Lehen urratsak eta Bambulo*. *Krisia*, nabarmendu behar dira. Beraietan, Atxagak *Bambulo* txakur detektibearen gorabeherak ezagutarazten dizkigu oso modu atsegin eta umoretsuan. Musika arloan ere badute aukera haurrek, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen *Baserrian* diskoa kaleratu baitute eta Txirri, Mirri eta Txirribitonen *Barre egin* izenekoak.

Gazte literaturan berriz, bi liburu interesgarri kaleratu dira Durangorako; Anjel Lertxundiren *Lehorreko koaderno* eta Joanes Urkixoren *Thule*. Lertxundiren lana botila batean mapa bat aurkitzen duen idazle baten inguruko nobela den bitartean, *Thule* erdiarohan girotutako pirata historia da.



Xanti Iparragirre eta Ion Sarasua, liburu feria eskutan dutela.

Aipamen berezia merezi duten beste bi liburu Imanol Muruaren *Palestina zauritua* eta Alberto Barandiaranen *Ez zaigu ahaztu* dira. Bietan garbi ikus daiteke idazleak kazetariak ditugula. Horrela, Imanolen lanak zaraztarrak Palestinan egindako bi hilabeteko egonaldia berri ematen du. *Ez zaigu ahaztu* berriz, oso liburu berezia da. Bertan, Argentinako diktadura militar bortitzak eragindako milaka eta milaka hilaketa, desagerketa edota torturen testigantza aurki daiteke. Hala ere, testigantza hori oso berezia da, liburuiko protagonistak Argentinan bizi diren euskaldun jatorriko herritarak baitira. Protagonista bikoitz gainera,

Barandiaranek erakusten digun bezala sarraskiak eragin zein jasan zituzten artean baitziren euskaldunak.

Azkenik, erreteriarra izan arren Eskoriatzara ezkondu eta 1981an erbesteratu beharra izan zuen arte gure herrian bizi izan zen Xanti Iparragirrearen *Biziaren azala* liburuak ekarriko dugu gogora. Bertan, Xantik urteetan momentuko gertakizunez, sentimentuez edo biziad idatzitako testu zein bertsoak biltzen dira.

Beraz, aukera faltarik behintzat ez da izango Durangon. Gauzak horrela, bertan eguna pasa eta euskal liburu edota diskoak eskuratzeko aukera paregabea duzue. Badakizue zer egin!

**DIRULAGUNTZAK**

\* Nafarroako Gobernuaren eskutik, **kirolaren zientzien** inguruan ikerketak egiteko aurre-doktorego mailako dirulaguntzak. **Epea: abenduak 2.**

\* 1999an Alemaniako unibertsitateetan **udako ikastaroak** egiteko dirulaguntzak, ikasle eta katedradunentzat. **Epea: abenduak 4.**

\* Alemaniako Goethe Institutuan **aleman ikastaroak** egiteko aukera, ikasketen azken edo azkenurreko kurtsoa egiten ari diren ikasleentzat, edo unibertsitateetan lanean diarduten tituludunentzat. **Epea: abenduak 11.**

\* Estatu espainiarreko edozein folklorearen inguruan ikerketak egiteko dirulaguntzak. **Epea: abenduak 30.**

**LANA**

\* Arrasateko Udalera **arkitektu bat** behar da. **Epea: EAOean argitaratu zain geratzen da.**

**LEHIAKETAK**

\* "Gordexolako Harana" XI. **Ipuin lehiaketa**, 6 urtetik 30 urte arteko pertsonen zuzenduta, gai librean, irudimena, sormena eta itxura sarituko dira. **Epea: abenduak 11.**

\* Irungo Argoiak kultur elkarteak, emakumearen astea iragartzeko **kartel lehiaketa** antolatu du. **Epea: abenduak 19.**

\* "Bilbao Hiria" **pop-rock lehiaketa**. Euskal Herria nahiz estatu espainiarreko taldeek parte har dezakete, bi modalitateetan: pop-rock edo rock gogorra-heavya. 4 kantaz osaturiko bilduma, **abenduak 31 baino lehen bidali behar da.**

\* Pasaiaiko Udal Euskaltegiak, urteroko **ipuin lehiaketa** antolatu du. Lanak euskaraz eta gai librean idatziak eta gutxienez 5 folioko luzera izango dute. **Epea: urtarrilak 8.**

\* "Portugaleteko Hiria" **komiki lehiaketa**, euskaraz edo erderaz, gai librean eta 4 orrialdeko luzeraz. **Epea: urtarrilak 15.**

**IKASTAROAK**

\* **Perkusio ikastaroa** Iñaki Bruñaren eskutik, astelehenean, 6etatik 9ak arte, Arrasateko Gazteluondo ikastolan.

\* Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak antolatua, **hastapena eta ziurtasuna goi mendian ikastaroa**, abenduak 12 eta 13an Teleran burutuko dena. **Informazio gehiago Arrasateko Gazte Bulegoan.**

**FANDANGO ETA ARIN ARIN IKASTAROA**

**Abenduak 11 asteazkena  
arratsaldeko 8etan  
Eskoriatzako frontoian**

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

Eskoriatza

- Udaletxea 943-714407
- Udal Bulegoak 943-714532
- Udaltzaingoa 943-714407
- Euskaltegia 943-792168
- Kultur-Etxea 943-714688
- Gizarte-Laguntzailea 943-714688
- Kirolotxea 943-715328
- Liburutegia 943-714688
- Luis Eceiza 943-714938
- Jose Arana-Almen Ikastola 943-714486
- Almen 943-714964
- Museo-Eskola 943-714688
- Ze Barri? 943-714077
- Talde Antimilitarista 943-715028
- Irakasle Eskola 943-714157
- Osakidetza 943-714452
- Telesko 943-714917
- Taxia 943-714059

Bestelakoak

- Eskualde-Ospital (Arrasate) 943-795300
- Gurutze-Gorria (Bergara) 943-76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 943-797199
- Suhiltzaileak (Oñati) 943-792800
- Renfe (Zumarraga) 943-721515
- Renfe (Gasteiz) (945) 232030
- Pesa (Arrasate) 902 101 210
- Larrialdiak (Arrasate) 771043
- SOS Deiak 088

**ORAIN DELA**



Hemen ditugu 1979ko kintako haurrak gogotsu beraien eginetan ikastolan (orain musika eskola dena). Baina horren lasaiak al dira orain, 15 urte pasa direnean? Ea ezagun dituzuen:

- 1.- Lourdes Martínez
- 2.- Gaizka Garai
- 3.- Sergio Romero
- 4.- Carla Segovia
- 5.- Estitxu Ramos (orain atxabaltarra)

Zaborra

# Behar den unean dagokion gunean



Zabor Bilketa:

Igande, Astearte eta Ostegunetan  
21:00etatik 22:00etara



Eguna  
Igandea  
Astearte  
Osteguna



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA  
COMUNIDAD DEL ALTO DEBA

El acuerdo del siglo XXI

XXI. mendeko  
akordioa

L'accord du XXI siècle

[www.jalgi.com/baieuskarari](http://www.jalgi.com/baieuskarari)



---

*euskarari*

Abenduaren 26an baduzu konpromezu bat · El 26 de diciembre tienes un compromiso · Le 26 décembre tu as un engagement